



BEZEROAREKIKO HARREMANA

Gure enpresak bi target mota bereizten ditu, alde batetik, gure tresnaren erabiltzaileak izango direnak, hau da, goi-mailako ikasketak burutu nahi dituzten Espainiako Batxi 2ko eta erdi-mailako zikloetako ikasleak. Beste alde batetik goi-mailako ikasketa horiek eskaintzen dituzten unibertsitateak eta ikastetxeak dauzkagu. Diru kopuru baten truke zentroak publizitate pertsonalizatua eskaintzeko aukera izango dute.

Lehenengo bezero motari dagokionez, harreman gehiena, automatizatua izango da plataformak izango duen algoritmo eta filtroen bidez. Hau da, plataforma digital bat den aldetik, bezeroak berak sartu beharko du zerbitzu bat emateko beharrezkoa den informazio pertsonala, hala nola zer ikasketa mota duen gustuko, zer nolako ordutegia duen, etab. Web-eko tresna bakoitzak algoritmo eta bestelako prozesu automatizatuen bidez bere beharrei erantzuna emango die.

Hala ere, edozein arazo edo zalantzaren aurrean gure webguneak eskaintzen duen bezeroari arreta zerbitzua erabiltzeko aukera izango du. Dena den, gure enpresa ezagutaraztera emateko prozesu publizitarioaren barruan, badago aurrez-aurreko kontaktua eskatzen duen zati bat ere. Hau da, iragarki batzuk online zabalduko diren arren, hainbat unibertsitate eta goi-eskolako feriatan, baita ikastetxeekin (pribatuak/publikoak/ kontzertatuak) eta ikasketa zentro ez reglatuekin harremanetan jartzea eta geletan hizketaldi informatiboak ematean aurrez-aurreko harreman bat garatuko dugu.



Era berean, unibertsitate eta goi-mailako zikloetako ikastetxeekin ere harremana pertsonala eta zuzenkoa izango da. Izan ere, harremanetan jartzea ezinbestekoa izango bait da zentro bakoitzaren publizitatearen nolakotasuna adostu ahal izateko.

Webgunean agerian izango diren posta elektronikoa, telefono zenbaki eta bestelako komunikabideen bitartez edozein pertsonak bezero izan edo ez, gurekin jartzeko aukera izango luke.

N2J TALDEA